

Euskal AEko Administrazioek 142.526 pertsona enplegatzen dituzte 2021ean, aurreko urtean baino % 1,9 gehiago

Euskal AEko administrazioen feminizazioa areagotu da, emakumeak guztizkoaren % 63,8 baitira jada

Euskal AEko Administrazio Publikoek (Estatuko Administrazioaren eta Gizarte Segurantzako Sistemaren mendeko langileak kontuan hartu gabe) 142.526 langile zituzten 2021eko urtarrilaren 1ean, Eustatek landutako datuen arabera. Euskal AEko Administrazioak landunen kopuruak gora egin du urtez urte, eta azken horretan 2.639 pertsona gehiago zenbatu dira, hau da, urte arteko % 1,9ko hazkundera.

Feminizazioa Euskal AEko Administrazioan

Azken urteotan ikusi den bezala, gero eta feminizazio handiagoa dago Euskal AEko Administrazioan: enplegatuen % 63,8 emakumeak dira (ehuneko 0,7 puntu gehiago 2020ko urtarrilaren 1ean baino), eta % 36,2, berriz, gizonak, zeinetan jaitsiera hori bera gertatu den. 2016. urteaz geroztik, emakumeek ehuneko 2,2 puntu irabazi dituzte; zehazki, 2021ean, emakumeen kopurua % 3,1 handitu da, eta gizonena pixka bat jaitsi egin da (-% 0,1).

Urtarrilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, sexuaren arabera

	2016		2017		2018		2019		2020		2021	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Guztira	130.916	100,0	132.442	100,0	134.925	100,0	139.569	100,0	139.885	100,0	142.526	100,0
Gizonak	50.239	38,4	50.249	37,9	50.464	37,4	51.456	36,9	51.670	36,9	51.617	36,2
Emakumeak	80.677	61,6	82.193	62,1	84.461	62,6	88.113	63,1	88.215	63,1	90.909	63,8

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

Datu hori nahiko altua da Eusko Jaurlaritzaren eta haren mendeko erakundeek kasuan, zeinetan emakumeen ehuneko % 70era iristen baita. Feminizazio-tasa ehuneko hamaika puntu azpitik dago Foru Aldundietan, non, oro har, % 58,9ko portzentajera iristen baita. Azkenik, toki-erakundeetan, gizonen eta emakumeen pisua nahiko antzekoa da: gizonen % 50,6 eta emakumeen % 49,4.

Egitura Euskal AEko Administrazio Publikoetan, esparru arautzailearen arabera


Langile funtzionarioak, 2021eko urtarrilaren 1ean, Euskal AEko Administrazio Publikoetako langile guztien % 61,7 ziren, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago (% 2,2ko igoera izan ondoren), kopuru osoa baino zertxobait gehiago (% 1,9); % 37,3 langile lan-kontratadunak ziren, Osakidetza estatutupeko langileak barne, eta % 0,9 goi-kargudunei zegozkien.

2021eko urtarilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatzailea

	GUZTIRA	Eusko Jaurlaritza eta menpeko organismoak	Foru aldundiak eta menpeko organismoak	Tokiko entitateak eta menpeko organismoak	Beste entitate publiko batzuk
Guztira	142.526	92.887	11.947	26.826	10.866
Goi-karguak	1.353	309	206	668	170
Funtzionario guztiak	88.022	62.774	7.062	14.950	3.236
Funtzionario finkoak	62.450	47.019	4.379	8.656	2.396
Aldi baterako funtzionarioak	25.572	15.755	2.683	6.294	840
Lan kontratadun guztiak	53.151	29.804	4.679	11.208	7.460
Lan kontratadun finkoak	18.092	7.185	2.331	5.463	3.113
Aldi baterako lan kontratadu	35.059	22.619	2.348	5.745	4.347

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

Langile finkoek, funtzionarioek, lan-kontratadunek eta estatutupekoek langile guztien % 56,5 osatzen dute 2021eko urtarilaren 1ean, aurreko urtean baino 1,2 puntu gutxiago, % 0,1eko aldakuntza negatiboa izan ondoren; bitarteko funtzionarioek % 17,9 osatzen dute, 2020aren aldean puntu bat baino zertxobait gehiago, % 9,0ko igoeraren ondoren. Bitarteko funtzionarioen bilakaera hori Euskal AEko Administrazio guztietan gertatzen da, baina nabarmenagoa da Eusko Jaurlaritzan (% 12,2). Bestalde, aldi baterako lan-kontratadun langileen pisuak aurreko urteko kopuruari eusten dio (% 24,6), % 1,8 hazi ondoren. Nabarmenezkoa da langile-kategoria horrek edukitako gorakada Foru Aldundietan eta mendeko erakundeetan, alde handiz izanik gehien hazi dena (% 10,8). Oro har, bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako lan-kontratadun langileen batura % 4,7 hazi da 2021ean, aurreko urtearen aldean.

2021eko urtarilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatzailea


Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

Langileen banaketa, mendekotasun-administrazio motaren arabera

Euskal Administrazioan enplegatutako 142.526 pertsonetatik, **2021eko urtarilaren 1ean**, % 65,2 Autonomia Erkidegoko Administrazioak ziren, % 18,8 Toki Erakundeetakoak, % 8,4 Foru Aldundietakoak eta gainerako % 7,6ak Unibertsitatekoak, Fundazioetakoak eta beste Erakunde Publiko batzuetakoak. Azken urtean, igoera txiki bat izan da (ehuneko 0,6 puntu) Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorrean eta haren mendeko erakundeetan; aitzitik, toki-erakundeek eta haien mendeko erakundeek 6 hamarren egin dute behera; gainerako Euskal AEko erakundeek ez dute aldaketarik izan guztizkoan duten pisan.

Batez besteko langileen bilakaera aztertuz gero, 2015. urtearekin alderatuta, Euskal AEko Administrazioetan lan egiten duten pertsonen kopurua 11.880 pertsonatan handitu zen, eta batez besteko tasa metagarria % 1,5ekoa izan zen. Balio absolutuetan, **Eusko Jaurlaritzak** eta nagusiki haren mendeko diren erakunde guztiek

7.780 langile gehiago izan zituzten, % 1,5eko batez besteko aldakuntza metagarriarekin. **Gainerako Erakunde Publikoak** izeneko multzoa, besteak beste Euskal Herriko Unibertsitatea, Fundazioak, Elkarre publikoak eta abar biltzen dituen, bigarren postuan dago, 1.548 pertsona gehiagorekin, nahiz eta, oro har, batez besteko aldakuntza-tasa metagarri handiena duten, % 2,6ko hazkundearekin. **Foru Aldundiak** dira hirugarren, 1.433 pertsona gehiagorekin eta batez besteko % 2,1eko tasa metagarriarekin. Azkenik, **Toki Erakundeak** daude, % 0,7rekin eta 1.121 pertsona gehiagorekin.

Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, erakunde motaren arabera

	2015		2019		2020		2020/2019	BATM 2020/2015 (%)
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%		
Guztira	128.531	100,0	137.373	100,0	140.411	100,0	2,2	1,5
Eusko Jauriaritza	83.450	64,9	88.457	64,4	91.230	65,0	3,1	1,5
Foru aldundiak	10.647	8,3	11.836	8,6	12.080	8,6	2,1	2,1
Tokiko entitateak	25.204	19,6	26.504	19,3	26.325	18,7	-0,7	0,7
Beste Entitate Publiko Batzuk	9.230	7,2	10.576	7,7	10.778	7,7	1,9	2,6

BATM: Batez besteko aldakuntza-tasa metatua

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

Aurreko urtearekin alderatuta, 2020an, COVID-19ak markatua, administrazio publikoetan lan egin zuten langileen kopurua % 2,2 hazi zen; tasa hori aztertutako aldiko batezbesteko metagarria baino handiagoa da, eta nabarmentzekoa da Eusko Jauriaritzaren mendeko langileen % 3,1eko hazkundera.

Langileen banaketa, mendekotasun-lurraldearen arabera

Lurraldeka, Bizkaiak enplegatutako pertsona guztien % 49,3 hartzen ditu, Gipuzkoak % 29,8 eta, azkenik, Arabak gainerako % 20,9ak. 2020. urtekoaren aldean aldaketa txikiak izan dira: Bizkaian bost hamarren igo da, Gipuzkoan hamarren bat eta Araban, aldiz, sei hamarren galdu dira.

2021eko urtarilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileen lurralde-banaketa

	GUZTIRA	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
EAko administrazioak	142.526	29.748	70.229	42.549
Eusko Jauriaritza	92.887	19.332	46.359	27.196
Foru aldundiak	11.947	3.705	5.415	2.827
Tokiko entitateak	26.826	4.799	12.897	9.130
Beste Entitate Publiko Batzuk	10.866	1.912	5.558	3.396

Iturria: EUSTAT. Herri-administrazioen gidazerrenda

Ohar metodologikoa: Direktorioaren esparruan Administrazio Publikoak dira: Euskal AEko Administrazio Orokorra, Foru Aldundiak eta Udalak, eta baita ere Erakunde Autonomiadun Administratiboak, Erakunde Publikoak, Sozietate Publikoak, Fundazioak eta haien menpeko Irabazi Asmorik Gabeko Erakundeak. Barne daude % 50eko edo gehiagoko parte-hartze publikoa duten erakunde guztiak, hala administrazio bakar batenak nola zenbaitenak.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62